

## **URKABUSTAIZ**

**1056**

### **Behin betiko onartzea kultura eta kirol jarduerak, euskara sustatzeko jarduerak eta gizarte jarduerak antolatzeko udal dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa.**

Behin betiko onartu da kultura eta kirol jarduerak, euskara sustatzeko jarduerak eta gizarte jarduerak antolatzeko udal dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena emateko udalbatzak 2008ko abenduaren 4ko ohiko bilkuran hartutako erabakia (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala, 2008-12-29koa, 149 zenbakia), ez baita inolako erreklamaziorik aurkeztu erabaki hori jendaurrean jartzeko epean. Horrela bada, aldatutako testua argitara emango da, eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egun baliodunetik aurrera izango ditu ondorioak. Hona hemen testua hitzez hitz:

Kultura eta kirol jarduerak, euskara sustatzeko jarduerak eta gizarte jarduerak antolatzeko udal dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa.

## **DEIALDIAREN OINARRIAK**

### **1.- DEIALDIAREN HELBURUA**

Aurrekontuaren mugen barruan, Urkabustaizko udalerrian kultura eta kirol jarduerak, euskara sustatzeko jarduerak eta gizarte jarduerak antolatzeko udal dirulaguntzak ematea, eta, orobat, herritarrek udal eskumenekoen zerbitzu eta jarduera osagarriak edo ordezkioak garatzeko prestazioak baldintza berberetan eskuratzea bermatzeko xedea zehaztea.

### **2.- ERAKUNDE ONURADUNAK**

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke irabazteko xederik gabeko kultur, kirol eta gizarte elkarte eta talde publiko zein pribatuak eta toki erakunde txikiak, baldin eta legez eraturik eta erregistraturik badaude. Horiek Urkabustaizko udalerrian izan behar dute jardun eremua, nahiz eta sozietate goitza udalerrri horretan ez eduki.

**3.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN PROGRAMAK** Dirulaguntza izan dezakete, lehenetsunez, Urkabustaizko udalerriko eremuan garatzen diren jarduerak kultura, aisia, euskara eta kirol arloetan, kirol federatua eta eskola kirola barne. Honako programek izango dute lehentasuna:

- Urkabustaizko udalerrian gizarte ongizatea sustatzen dutenek.
- Euskararen erabilera sustatzen eta bultzatzen duten programak egiten dutenek.
  
- Herritarren parte-hartzea bultzatzen dutenek.
- Udalerria sustatzen dutenek.

- Oro har, kultura, euskara eta kirola hedatzeko eta sustatzeko jarduerak osatzen dutenek eta, bertoko kirola, bereziki.
- Kirola praktikatzea eta kultura eskueran izatea laguntzen duten jarduerak diseinatzen dituztenek.
- Arreta bereziko taldeen eta gizarteko sektore behartsuen artean (adin taldeak, ezgaituak, emakumeak ...) kirol praktika sustatzera bideratutako jarduerak antolatzen dituztenek.
- Kirol lehiaketak antolatzen dituztenek.
- Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna bermatzen duten programak eta jarduketak sustatzen dituztenek eta talde behartsuenen edo jendartetik baztertuta egoteko arriskuan dauden taldeen parte-hartzea eta gizarteratzea bermatzen dituztenek.
- Tokiko tradizioak berreskuratzea bultzatzen dutenek.

Balioespen ondorioetarako, lehenasuna izango dute: gazteek aisialdian izan ditzaketen arriskuak prebenitzera zuzendutako jarduera programek, jolas eta aisialdi jarduerak, bizi kalitatea hobetzeko

jarduerak, ezinduei zuzendutako jarduerak, gizartean gazteen papera sustatzeko eta bultzatzeko jarduerak.

#### 4.- AURREKONTU KREDITUAK

Ekitaldi bakoitzerako egiten den udal aurrekontu orokorrean aurrekontu partidak egingo dira urtero, oinarri hauetan jasotzen diren dirulaguntzen banaketa partida horien kontura egiteko.

Zenbatekoa aurkeztutako eskabideen eta aurrekontu partidaren zuzkiduraren arabera aztertuko da.

#### 5.- DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Udalak programaren aurrekontuaren gehienez % 80raino lagundu ahal izango du diruz.

Hala ere, udalak izapidetza berezia eman ahal izango die udalaren interes bereziko programa jakin batzuei, eta programaren kostuak sortutako defizitaren % 100erainoko dirulaguntza eman ahal izango die.

Dirulaguntzen guztirako zenbatekoa ezin da izan, inolaz ere, Urkabustaizko Udalaren aurrekontu orokorreko aurrekontu partidetan xede horretarako esleitutakoa baino handiagoa.

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan, inolaz ere, elkarte edo erakunde onuradunak egingo duen jardueraren kostua baino handiagoa, dela bera bakarrik, dela beste erakunde batzuek emandako dirulaguntzei batuta.

Onartu den dirulaguntza berriro aztertu ahal izango da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakin ondoren. Horrelakoetan, dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa gastuen eta sarreraren arteko azken likidazioa egin eta hortik ateratzen den emaitza defizitarioa izango da. Zenbatekoa aurkeztutako eskabideen eta aurrekontu partidaren zuzkiduraren arabera aztertuko da.

#### 6.- ESKABIDEAK AURKEZTEA

1.- Urteko programa edo proiektuetarako eskabideekin batera seigarren oinarrian eskatzen den dokumentazioa indarreko urteko (deialdiaren xedea) lehenengo hiruhilekoan aurkeztuko da.

Izaera puntuala edo apartekoa duten jarduera edo programak, jarduera hasi baino 1 hilabete lehenago aurkeztuko dira. Edonola ere, indarreko urteko azaroaren 13a izango da epemuga.

2.-Eskaera eta dokumentazioa udalaren sarrera erregistroan emango dira, edo bestela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan adierazitako bideak erabilita.

3.- Dirulaguntza hauek eskuratzeko eskaerak aurkezteak oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela esan nahi du.

4. Ezin izango dituzte dirulaguntza hauek eskuratu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan aipatzen diren arau hausteengatik zigorrik izan dutenek.

#### 7.- AGIRIAK

Udalak emandako eskaera ofiziala eta inprimakia. Inprimaki bat bete behar izango da proiektuko/programako edota denboraldiko.

Estatutuen fotokopia eta Elkarte eta Entitateen Erregistroan legez eratu eta erregistratuta dagoela egiaztatzen duten agiriak. Aurreko urteetan aurkeztu zituzten erakundeek ez dute zertan berriro aurkeztu, salbu eta aldatetaren bat egin badute edo toki erakunde txikiak badira.

Gizarte Segurantzako eta Ogasunaren Diruzaintza Nagusiko betebeharrekin egunean egotearen ziurtagiria. Halakorik ezean, zerga betebeharrekin egunean egotearen zinpeko aitorpena aurkeztu behar izango da. Ziurtagiri horiek eskatu egin ahal izango dira, egoki iritziz gero.

Gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean hutsak zuzentzeko eskatuko die interesdunei udalak, eta ohartaraziko die ez badute hala egiten, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela, besterik gabe.

#### 8.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK

Dirulaguntzak ematea borondatezkoa izango da; hortaz, ez da inolako betebeharririk egongo deialdi honetako oinarriak betetzen dituzten eskaera guztiei dirulaguntza emateko.

1.- Laguntzak zenbatekoak izango diren zehazteko, eskaeran emandako datuak balioetsiko dira (laguntza eskaera eta I inprimakia).

2.- Dirulaguntza emateko eta dirulaguntza horren zenbatekoa zehazteko, laugarren oinarrian ezarritako mugak gorabehera, honako balorazio irizpideak erabiliko dira:

- Programan parte hartu dezaketen pertsona kopurua.

- Xedeak: kultura zabaltzea eta kulturaren sartzeara, euskararen erabilera bultzatzea eta beste hauek sustatzea: gizonetzkoek eta emakumezkoek berdintasunez parte hartzea, komunitatearen prebentzioa, 12tik 18 urtera bitarteko herritarren parte hartzea, kirola egitea errazten duten jarduerak eta garrantzi soziala zabaltzea udalerrian.

- Jarduerak zenbat egun iraungo duen edo zenbat jardunaldi (ikastaroak, lehiaketak, hitzaldiak, ekitaldiak eta abar) egin diren udalerrian.

Proiektua aurreikusitako finantzaketaren arabera garatu ahal izatea. (Autofinantzaketa)

- Gastu konputagarrien aurrekontua. Proiektu bakoitzaren premia baloratuko da, jarduera garatzeko. Gastu konputagarriak izango dira (puntuak kalkulatzeko baino ez) ondoren adierazten diren kontzeptuengatik eta gehienezko ehunekoengatik diruz lagundutako jarduerari egotzi dakizkiokeenak:

\* Kirol federazioen fitxak: 100%

\* Arbitrajeak: 100%

\* Begiraleak-hizlariak-gidariak: 100%

\* Entrenatzaileak, helduen kategorietan izan ezik: % 100

\* Jarduera aurrera eramateko beharrezkoak diren materialak/guneak alokatzea eta onik zaintzea: % 100

\* Antzerki, bertso, kirol, dantza, musika eta gisa horretako ekitaldiak/erakustaldiak eta ipuin kontalaritza saioak: % 100

\* Argitalpenak (herritarrentzako interes orokorrekoak): 100%

\* Jarduerarako aseguru berezia: % 100.

\* Anbulantziak, posta, baimenengatikoko tasak... (abalik ez): % 100

\* Museoetara, parke naturalera eta interpretazio guneetara sartzeara, kultur bisitak eta antzekoak: % 100

\* Material suntsikorra (jarduera garatzeko oinarritzko materiala): % 75

\* Dietak, horniketak: % 50

\* Garaikurrak-sariak: % 50

\* Erakundea mantendu eta martxan jartzeko gastu orokorrak: % 50

\* Autobusak, garraioa alokatzea: % 50

\* Lunch-a: % 25

\* Kartelak, programak, publizitatea: % 25

\* Material inbentariagarria: % 25

Ondorengo hauek ez dira konputatzeko moduko gastuak ez eta justifikatzeko modukoak ere, puntuazio baremoaren arabera, laguntza kalkulatzeko; baina bai jardueraren gastu osoa konputatzeko:

- \* Janariak oro har
- \* Erakundearen barruko gastuak (dietak, soldatak...)
- \* Auto partikularretan egindako joan-etorriak
- \* Ostatua, turismo irteerak edo antzekoak egiten badira.
- \* Eta fakturen bidez ezin justifika daitezkeen gastuak (begiratu justifikatzeko modua).

Programa euskaraz egiten bada: lortutako puntuen % 50 erantsiko da.

## 9.- ESKAERAK AZTERTU ETA EBAZTEA

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero aztertu eta ebatziko da dirulaguntza eman ala ez.

9.1.- Espedientea bideratzeko eta ebatzeko organo eskuduna Espedientea bideratzeko organo eskuduna Kultura arloko lehendakaria izango da.

Ebatzi, berriz, alkateak ebatziko ditu.

9.2.- Eskaerak aztertu eta erabakitzea

Instrukziogileak jarduera hauek egingo ditu:

- Ebatzeko beharrezkoak diren txostenak, besteak beste, arloko teknikariarena eta idazkari kontuhartzailearena.

- Eskaerak ebaluatzea, oinarri hauetan definitutako irizpide, helburu edo lehentasunen arabera.

Behin eskaerak ebaluatu ondoren, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 22.1 artikulua betez oinarri arautzaileak ezarri dituen kide anitzeko organoari bidaliko zaio espedientea, eta eskaeren gaineko txostena egingo du.

Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena aztertu ondoren, organo instrukziogileak ebazpenerako behin-behineko proposamena aurkeztuko du, behar bezala arrazoituta. Horren berri interesdunei eman beharko zaie, eta hamar eguneko epea izango dute alegazioak aurkezteko.

Ebazpen proposamenak puntu hauexek adierazi beharko ditu, gutxienez: diruz lagundu daitezkeen proiektua, lortutako puntuak eta justifikatzeko epea.

Kide anitzeko organoak eta alkateak egin beharko dute behin betiko ebazpen proposamena, dirulaguntza ematea behin betiko onartuko duen ebazpen arrazoitua bidez.

Ebazpen horretan datu hauexek, gutxienez, adieraziko dira: dirulaguntza jasoko duen eskatzailea edo eskatzaile zerrenda eta gainerako eskaeren ezeztapena.

Halaber, ebazpenean bertan jakinaraziko zaizkie interesdunei ebazpenaren aurka jar ditzaketen errekursoak, zer organo judiziali aurkeztu behar dizkioten, eta hori egiteko epea; dena dela, interesdunek egoki irizten dioten beste edozein eskubide ere gauza dezakete.

Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera hiru hilabete izango dira ebazpena emateko. Hiru hilabete horiek igaro eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskaera onartu ez dela esan nahiko du. Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera lau hilabete izango dira, gehienez ere, ebazpena emateko. Lau hilabete horiek igaro eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskaera onartu ez dela esan nahiko du.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du eta, Adminis -trazioarekiko Auzibideetarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 9.c) artikulua xedatutakoaren ildotik, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegi nagusietan. Horretarako bi hilabete izango dira ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurkatu ezean, errekurtoa hilabetean aurkeztu ahalko zaio ebazpena eman zuen organo berari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua) 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoaren ildotik.

## 10.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA

Honelaxe ordainduko dira dirulaguntzak:

1.- Urteroko programetan, dirulaguntzaren % 75 gehienez ahal izango da ordaindu aurretik. Dirulaguntzaren gainerakoa jarduerak bidezkotu eta berorren memoria egin eta gero ordainduko da, hurrengo ekitaldiaren urtarrilaren 15a baino lehen eginez gero. Hala ere, egiaztagiriak aurkezteko beste epe bat jar daiteke dirulaguntza ebazpen horretan, baina, betiere, paragrafo honen hasieran jarritakoa baino lehenagokoa.

2.- Ezohiko programetarako eta jarduera zehatzetarako, dirulaguntza jarduera bidezkotu eta jardueraren memoria egin eta gero eta jarduera amaituta ordainduko da, dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako epean.

## 11.- BIDEZKOTZEKO EPEA

Dirulaguntzen erakunde onuradunek emate ebazpenean agertutako epea amaitu baino lehen eta hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dute ondoko oinarrian azaldutako dokumentazioa

## 12.- ERAKUNDE ONURADUNEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1) Memoria- Likidazioa diruz lagundutako proiektu edo programa bakoitzeko (udal bulegoetan eska daiteke eredu), ondoko datuak jasota:

- Egindako jarduerak
- Denbora zehaztea (datak eta orduak, bestak beste)
- Parte-hartzaileak
- Helburuak eta balorazioa
- Likidazio ekonomikoa: gastuak eta sarrerak zehaztea.

2) Diruz lagundutako jarduera edo jarduerak egiteagatik izandako gastuak frogatzen dituzten agiriak. jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak

Gastuak justifikatzeko ez dira onartuko ondoko datuak argi eta garbi azaltzen ez dituzten ordainagiriak, fakturak, ticketak, eta abar.

- Jaulkitzailea, bere izena edo sozietatearen izenarekin eta NANA edo IFZarekin
- Hartzailea, helbidea eta IFZa (dirulaguntzaren erakunde onuradunarekin bat etorri behar da)
- Gastuaren xedea.
- Data
- BEZa: aplikatutako zerga tasa(k)

Gastuen ziurtagiriak I. formularioaren kontzeptuen (A, B, C, D...) arabera ordenatu eta mailakatu behar dira.

3) Zinpeko aitorpena: xede bererako ea edozein administrazio edo erakunde zein organismo publikorengandik dirulaguntzak edo laguntzak jaso dituen. Dirulaguntzaren bat lortuz gero, jasotako zenbatekoa adierazi beharko da, baita Administrazio emailea ere; halaber, datuak benetakoak diren egiaztatzekeo agiria aurkeztu beharko da.

4) Programen aleak, non Urkabustaizko Udala babeslea dela adierazi beharko den.

#### 13.- DIRULAGUNTZA GALTZEA

Erakunde onuradunek deialdi honen bidez emandako dirulaguntzak gal ditzake, espedientea abiatu ondoren, honako kasu hauetan:

Aurkeztutako eskabide eta agirietan datu faltsuak jarri badira.

Dokumentazioa aurkezteko epea amaitu denean eta berariaz eskatu arren, aurkezten ez bada.

Oro har, oinarri hauetan edo diru-laguntza ematen duen erabakian finkatutako betebeharren bat konplitu ez bada.

Dirulaguntza kenduz gero, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira nahitaez, Urkabustaizko Udalaren kontura transferentzia eginez. Erakunde batek zenbatekoa borondatez itzultzen ez badu, ezin izango du udalaren inolako dirulaguntzarik jaso, eta udalak zenbatekoak eskuratu ditzake.

#### 14. - DIRULAGUNTZA ALDATZEA

Dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, erabakia ere aldatu egin ahal izango da.

#### 15.- LAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Laguntza hauekin batera, beste laguntza edo dirulaguntza batzuk ere eskura daitezke.

Udalak emandako dirulaguntzen zenbatekoa sekula ere ezin daiteke, bakarka zein beste administrazio, erakunde edo organismo publiko batek emandako laguntza edo dirulaguntzekin batera, onuradunak aurrera eraman beharreko jardueraren kostua baino handiagoa izan.

#### 16.- INTERPRETAZIOA

Oinarri hauek ulertzeko eran sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, informazio batzordeak txosten teknikoa eman eta gero.

#### 17.- ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Diru-laguntzak direla eta, administrazioko arau-hauste izango dira Dirulaguntzak eta Laguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorren IV. kapituluan jasotako egite edo ez-egiteak.

#### 18.- ORDEZKO LEGERIA

Oinarri hauetan xedatu ez denerako, Urkabustaizko Udalak dirulaguntzak eta laguntzak arautzeko emandako ordenantza orokorrean eta lege eta araudi orokorrean ezarritakoa hartuko da kontuan.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Izarra, 2009ko otsailaren 9a.- Alkate-lehendakaria, JESÚS ÁNGEL HERRERO MANZANO.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Izarra, 2009ko otsailaren 9a.- Alkate-lehendakaria, JESÚS ÁNGEL HERRERO MANZANO.

#### PUNTUAZIO BAREMOAK:

KULTUR, KIROL, EUSKARA SUSTATZEKO

EDOTA GIZARTE PROGRAMAK

URKABUSTAIZEN 2009AN

#### **PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONA KOPURUA PUNTU**

##### **1-20**

Gehienez 10 parte hartzaile	1
11- 50 parte hartzaile	3
51- 100 parte hartzaile	6
101- 300 parte hartzaile	10
301- 500 parte hartzaile	15
501 parte hartzaile baino gehiago	20

##### **HELBURUAK (1-30)**

1 helburu	1
2 helburu	5



3 helburu	10
4 helburu	15
5 helburu	20
5 helburu baino gehiago	30
<b>PROGRAMAKO EGUN/JARDUNALDI KOPURUA (1-20)</b>	
1 jarduera egun	1
2 jarduera egun	2
3 jarduera egun	3
4 jarduera egun	4
5 jarduera egun	5
6 jarduera egun	6
7 jarduera egun	7
8 jarduera egun	8
9 jarduera egun	9
10 jarduera egun	10
11-15 jarduera egun	15
15 jarduera egun baino gehiago	20
<b>AUTOFINANTZAKETA (1-50)</b>	
<b>PUNTUAK</b>	
% 15 eta % 25 bitartean	1
% 26 eta % 35 bitartean	3
% 36 eta % 50 bitartean	6 edo 15
% 51 eta % 65 bitartean	20 edo 30
% 66 baino gehiago	50
<b>DIRUZ LAGUNTZEKO MODUKO GASTU AURREKONTUA (1-50)</b>	
<b>PUNTUAK</b>	
1-500 euro	4
501-1.000 euro	8
1.001-5.000 euro	12
5.001-10.000 euro	18
10.001-12.000 euro	25
12.001-20.000 euro	35
20.001 euro baino gehiago	50
<b>LORTUTAKO PUNTUAK, GUZTIRA</b>	
Programa euskaraz garatzen badu	bai ala ez
lortutako puntuen % 50 gehitu	
<b>PUNTUAK GUZTIRA</b>	